



Arriaga Antzokia (Bilbao)

Arriaga Antzokia dugu adibiderik behinenetakoa, espainiar Estatuan, zortziehun urteetako antzokien arkitekturaren barruan. Joaquín Rucoba Bilboko udal arkitektoak egin zuen proiektua 1886 eta 1890 bitartean. Proiektu hori hain izan zen garrantzitsua -aurrekontuak 750.000 pezeta jo zuen- ezen Udalak ekimen pribatuaren eskuetan utzi behar izan baitzuen finantzaketa. Horren ordez, ekimen pribatuak ustiatzeko eskubidea jasotzen zuen 92 urtetarako, eta epe hori amaitutakoan hiriaren jabetzara itzuliko zen.

Antzoki berria non kokatuko zuen erabakitzerakoan, Udala ez zen behar adina irudikorra izan, hirigintzaren aldetik, eta antzoki zaharraren lurzorua nahiago izan zuen, Abandoko Zabalgunek eskaintzen zituen abantailak erabiltzea baino. Aldi berean, jokabide hori zela bide, garai hartako europar hirigintzaren joera nagusitik urruntzen zen; izan ere, joera horrek zabalgunek eraikin publikoek sendotzera jotzen zuen.

Kokaleku hori ez zen egokiena, eta hori bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, orubea hiri historikoaren mugaleroan zegoen eta itxi egiten zuen Bidebarrieta kalea, eta, bestetik, itsasadarra oso hurbil zegoen. Bi zertzelada horiek behartu egin zuten antzokia kalearen lerroan jartzera eta Erriberako kaia zabaltzera; hala, sei metro irabazten zitzaion itsasadarrari, hamalau metroko alde bat libre geratzen zela portuko zerbitzuetarako.

Orubearen konplexutasunaren aurrean, Rucobak agertu zuen planteamendua guztiz zen egokia. Antzokia altxatzen zen Areatzako Bulebarraren diagonalara errematatzeko hiri-pieza bailitzan, hots, San Nikolas Elizatik abiatzen den diagonalara errematatzeko. Era horretan, ibiltokia sendotzen zen trantsiziozko hiri-eszenatokia zenez, hau da, hurren zegoen hiri zaharraren eta Itsasadarrak bestaldean irekitzen den berriaren arteko trantsizioa zenez.

Antzokiaren fatxadak diseinatzeke, Rucobak gidabide hartu zuen Parisko Opera Antzokiak ezarria zuen eredua, Garnier-en obra zena. Eragin hori nabaritzen da batez ere fatxada nagusiaren konposizioan eta apaindura lanetan.

Fatxada nagusia bi dorre poligonalekin antolatzen da eta taxueran hiru ordena erabiltzen dira: basamentua, sarbideetan eta solairuaratean, fustea, antzokiari dagokiona, eta atikoa, erlojuaren lekua dena. Taxuera horren anomaloa da basamentuari emandako gehiegizko dimentsioa, sozietate bati alogerean emateko asmatu baitzen. Gainera, tratamendu kurbo-konbexoa ematen zaio fatxadari, kanpoaldera islatzen baita barruko antolaera.

Apaindura lanak arranditsu eta oparoak gertatu ziren, honako xehetasun hauetan zehaztu zirela: kuxindura, ehundura efektua, basamentuan bi harri mota ezberdin nahastearen ondorioa dena, eskulturazko apaindura (atlanteak, aingeruak, figura alegorikoak, etab.), mentsula handiak, hutsuneak, pilastrak eta ordena erraldoiko erdizutabe binakatuak, etab.

Plantaren taxuketa orokorra egiteko, ferra-arkuaren tipologia erabili zen, italiar antzoki-erakuntzen tradizioaren bereizgarria zena. Eraikinaren egiturarako, burdina aukeratu zuen Rucobak, garai hartan suaren kontrako teknologiarik aurreratuen baitzen, eta eskakizun hori funtsezkoa baitzen eraikin hau bezalako ikuskizun-erakinek egiteko orduan.

Hala eta guztiz ere, antzokiak izugarritzko sutea jasan zuen 1914an, bere barrualde osoa hondatu zuena. Horren konponketa egingo zuen Federico Ugaldek 1916 eta 1919 bitartean; hala, fatxadei eutsi ziren, barrualdea berregin zuen eta estalkiko eskulturazko erremateak kendu zituen.

Berriro ere birgaitua izan zen 1982 eta 1986 bitartean, Francisco Hurtado de Saracho arkitektoaren proiektuari atxikiz. Arkitekto horrek eskailera inperiala sartu zuen, antzokiari itxura arranditsuagoa eman ziona, eta sarbideak hobetu zituen.

Testua: Gorka Pérez de la Peña.



Arriaga Antzokia

Bilbao. (Arriaga plaza. Nerbioi ibaiaren Erriberan, Hirigune Zahar eta Areatzako zubiaren ondoan).

Bisiten ordutegia:

Aurretiazko hitzordua behar da.

Harreman telefonoa:

94 416 33 33

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- La Concordia geltokia. (Bailén kalea, 2).
- Yohn Jauregia edo "Burtsa" Eraikina. (Pilotakalea).
- San Nikolas Eliza. (San Nikolas plaza).
- Plaza barria.